007-Balizko ingurumen-inpaktuak

ekolur

6. AURREIKUS DAITEZKEEN INGURUMEN ONDORIOEN IDENTIFIKAZIOA ETA BALORAZIOA

Aurreko atalean deskribatutako ingurumen-balio eta arriskuak kontuan hartuta, Plan Berezia garatzeak izan ditzakeen eragin potentzialak aztertuko dira ondoren:

- Lurzoruaren okupazioa
- Lurzoruaren ahalmen agrologikoaren gaineko eragina
- Landarediaren gaineko eragina
- Faunaren gaineko eragina
- Natura 2000 Sarearen gaineko eragina
- Paisaiaren gaineko eragina
- Higadura jasateko arriskua
- Zarata eta kutsadura atmosferikoa (eraikuntza-lanak)
- Zarata (ustiapen garaian)
- Sortutako hondakinak (eraikuntza-lanetan eta ustiapen garaian)
- Baliabideen kontsumoa handitzea (eraikuntza-lanetan eta ustiapen garaian)
- Mugikortasunaren gaineko eragina
- Aldaketa klimatikoaren gaineko eragina
- Jasangarritasun energetikoa

Plan Bereziak antolatutako esparruan ez da ur-ibilgurik igarotzen eta ez da kultura ondarerik identifikatu; eremua ez da interes naturalistikoko eremua ezta ere korridore ekologikoen parte; ez du kutsatuta egon daitekeen lurzorurik, ezta uholde arriskurik ere; eta ezaugarri onuragarriak ditu akuiferoen urrakortasunari dagokionez; beraz, aipatutako alderdiak ez dira kontuan hartu ingurumen-inpaktuen balorazioan.

6.1. Lurzoruaren okupazioa

Plan Bereziak 11.702,55 m^2-ko azalera hartzen du, baina azaleraren erdia baino gehiago aurretik hiritartutako lurzorua da, zehazki 6.451,30 m^2. Gainontzeko azpieremuek, azaleraren ia %40-k, nahiz eta aurretik hiri-lurzorua bezala sailkatuta egon, landalurreko ezaugarriak mantentzen dute eta eremuko baratze-, frutarbola- eta belardi-erabilera dute.

Zehaztu egin behar da indarrean dagoen planeamenduak ere eremu beraren okupazioa jasotzen duela. Beraz, Plan Bereziak egiten duena planeamendu orokorraren garapena besterik ez da.

Plan Bereziaren proposamenak eragin zuzena, atzeraezina eta berreskuraezina izango du lurzoruaren okupazioan. Hala eta guztiz ere, okupatutako landalurraren azalera txikia denez, 0,52 ha, eta eremua hirigunearen jarraipen zuzena denez, esan daiteke inpaktua bateragarria izango dela.

6.2. Lurzoruaren ahalmen agrologikoari egindako inpaktua

Eremuko azaleraren %56-ko lurrek ez dute nekazaritzako balio, hiritartutako lurrak dira eta. Gainerako %44an ahalmen agrologiko ertaina (IV kategoria) duten lurzoruak identifikatu dira. Gipuzkoako Mota Agrologikoen Maparen arabera, lurzoru hauek malda txikiko mendi-bizkarretan eta %20 baino gutxiagoko

malda duten lurrak dira, lantzeko mugan daudenak. Landalana egitean egiaztatu denez, zenbait azpieremuetako maldek %20-ko penditzatik gora dute, eta, beraz, zailtasunak dituzte lurra modu egokian lantzeko, landuz gero higadura-arriskua handitu daiteke eta.

Proposamena garatzeak eragin zuzena, atzeraezina eta berreskuraezina izango du lurzoruaren ahalmen agrologikoan. Hala ere, esan daiteke inpaktua bateragarria izango dela, izan ere, deuseztatutako lurzoruak ez dira ahalmen handiko lurzoruak.

6.3. Landarediaren gaineko eragina

Onartutako antolamendua garatzeak dagoen landaredia ezabatzea eta zuhaitz-mozketa ekar dezake eremuko alde gehienetan.

Landarediaren mozketak eragin negatibo, atzeraezina eta berreskuragarria izango du. Aipatzekoa da, neurri handiko zuhaitz apaingarri eta fruta-arbolak daudela eremuan, bai Soroa etxeko lorategian, bai Errastiko belardietan. Bestalde, '6510 Altuera txikiko segalarre txiroak' Interes Komunitarioko Habitataren azalera txiki batzuk identifikatu dira eremuan, zehazki 0,16 ha.

Prebentzio-neurri gisa, ahal den neurrian habitat komunitarioetan eragina ekiditea proposatzen da (ikus 10. atala). Beraz, aurreikusten da eragina neurrizkoa eta ez oso esanguratsua izango dela.

6.4. Faunaren gaineko eragina

Plan Berezitik sortu litezkeen jarduerek ez dute modu esangurasuan eragingo Aginaga erdigunean eta inguruan antzemandako intereseko landarediari ezta ibai-ibilguei, ondorioz, ezta bertan dagoen faunari ere. Esan daiteke eragina ez dela esanguratsua izango.

6.5. Interes naturalistikoko eremuen gaineko eragina

'Oriako itsasadarra' ES2120010 Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE), Natura 2000 sare ekologikoaren parte dena, estuarioa (EB kodea 1130) jo da kontserbatu beharreko funtsezko elementutzat, izan ere, Oriako itsasadarra EAEko zabalenetako bat da, eta bertako padura funtzionaleko guneetan balio eta interes handiko fauna eta flora dago eta.

KBE honen eta Plan Bereziak antolatutako Aginagako erdiguneko eremuaren artean gutxieneko distantzia 250 m.-koa da. Beraz, KBEn eragin zuzenik ez da izango. Gainera, eremuaren garapenak hiriguneko zerbitzuei lotura bermatzen du (hornidura, saneamendua, etab.). Beraz, esan daiteke Plan Bereziak jasotako antolamenduak ez duela eragin esanguratsurik izango KBEn.

6.6. Paisaiaren gaineko eragina

Antolatutako eremuaren ikusizko hauskortasuna, berez, txikia da. Alde batetik, eremua ez delako ikusten oso erabiliak diren azpiegituretatik, eta bestetik, egingo diren eraikinak modu errazean integratuko direlako gaur egun dauden eraikinen artean. Beraz, proposatutako garapenak Aginagako hirigunearen jarraipen modura ulertu daiteke, eta ez du eragin esanguratsurik izango paisaian.

Izatekotan, paisaiaren gaineko inpaktua aldi baterako negatiboa eta itzulgarria izango da eraikuntza-lanen fasean soilik. Plan Bereziak ezarritako eraikuntza baldintzak kontuan hartuz, inpaktua neurrizkoa eta ez oso esanguratsua izango da.

6.7. Higadura-arriskua

Jardueren ezaugarriak eta prebentzio-neurriak ezartzeko aukera kontuan hartuz, inpaktua gertatzekotan, negatiboa, ez-jarraia, itzulezina, berreskuragarria eta ez esanguratsua izango dela irizten da.

6.8. Zarata eta kutsadura atmosferikoa (obrak)

Eraikuntza lanek irauten duten bitartean, makineriaren joan-etorriek kalitate akustikoa gutxitzea eta esekidura-partikulen eta inguru hurbileko partikulen kopurua handitzea eragin dezakete.

Plan Bereziaren ezaugarriak direla eta, esan daiteke, sortutako eraginak aldi baterakoak, itzulgarriak eta berreskuragarriak izango direla eta beraz, ez oso esanguratsuak.

6.9. Zarata (ustiapen garaia)

Eguneroko joan-etorrietan erabilitako ibilgailu motordunek zarata igorle berri moduan joka dezakete ingurunean inpaktuak eraginez, bereziki, inguruan dauden etxebizitzetan. Azterketa akustikoak ondorioztatu duenez, Plan Bereziak aurreikusitako antolamendua kontuan hartuta, bizitegi-erabilera duten eremuetarako ezarritako helburu akustikoak beteko dira, eta, beraz, zaratari lotutako inpaktua ez da aurreikusten.

Bestetik, herritarregan zaratak izan dezakeen inpaktua saihesteko xedearekin eta bizitegi-erabilerarako ezarritako kalitate akustikoaren helburuak kontuan hartuta, Plan Bereziak saihesbidea delakoa espazio atsegin bat izatea aurreikusi du, eta, horretarako, eremu barruan autoari eman beharreko espazioa ondo neurtu da, oinezkoei lehentasun osoa emanez. Beraz, alde horretatik, inpaktua ez da esanguratsua izango.

6.10. Sortutako hondakinak (obrak eta ustiapen garaia)

Eraikuntza lanek irauten duten bitartean, edozein motatako hondakinak sortzen badira, soberako lurrak eta landare-mozketa jatorri duten hondakinak barne, era egokian eta indarrean dagoen legediaren arabera kudeatuko dira.

Halaber, ustiapen-fasean, etxebizitzetan eta jarduera ekonomikoetan sortutako hondakinak inpaktu negatiboa sor dezakete, hau da, hondakinen sorrera handiagotzea. Hondakin hauek egungo udalerriko hondakinen-bilketako zerbitzuaren bitartez kudeatu beharko dira. Hala ere, hasiera batean badirudi egun udalerrian finkatuta dagoen hondakinen bilketa eta kudeaketa sistemarekin, atez-ateko sistemarekin, onargarria izango litzatekeela.

Hondakin gehiago sortzeak ekar dezakeen inpaktua aldi baterakoa izango da eraikuntza-lanen fasean eta iraunkorra ustiapen-fasean, eta kasu guztietan, itzulgarria eta berreskuragarria. Baldin eta hondakinak indarrean dagoen araudiaren arabera kudeatzen badira, inpaktua bateragarria izango da.

6.11. Baliabideen kontsumoa handitzea (obrak eta ustiapen garaia)

Biztanle berriak Aginagako hirigunera ekartzeak baliabideen kontsumoa (ura, energia, etab.) handituko du, baina, beti ere, sakabanatutako eraikuntzetan sortutakoa baino gutxiago. Beraz, printzipioz, eragina onargarriagoa da bestelako garapen motak sorturikoa baino.

6.12. Mugikortasunaren gaineko eragina

Plan Bereziaren helburuetako bat Aginagako egungo espazio publiko nagusitik autoa ateratzea izan da. Horretarako saihesbide berri bat proposatzen da, Arau Subsidiarioetan jasotzen den trazadura eta izaera egokituz. Saihesbidea zabalpen berriko kale nagusian bihurtuko da, oinezkoentzako espazio atsegin bat sortuz eta autoari eman beharreko espazioa ondo neurtuz.

Bestetik, auzoari iristen zaio garraio publikoko zerbitzu egokia (Lurraldebus eta Usurbilgo taxi-bus zerbitzuak) eta Plan Orokorraren Aurrerakinaren proposamenak aurrera eginez gero, Aginagak bizikleta bidezko lotura izango du Usurbilgo hirigunearekin, Santuene eta Txokoaldetik igarotzen bidea luzatuz.

Beraz, esan daiteke aukerak badaudela proposamenak izan dezakeen eragin negatiboa murrizteko eta mugikortasun jasangarria bultzatzeko.

6.13. Aldaketa klimatikoaren gaineko eragina

Garapenak 0,5 ha-ko eremu baten artifizializazioa ekar dezake. Lurzoruaren artifizializazioak hiriguneko bero-uharte efektua (Aldaketa klimatikoaren efektua) handitzea eragin dezake. Efektu hau jatorri termikoko fenomenoa da, hiriguneetan eta bereziki gauean gertatu ohi dena, eraikuntza masiboko esparruetan tenperatuak gora egiten duenean. Aginaga ez dago bero-uharte efektuaren menpe eta ez da aurreikusten Plan Bereziak egoera hau aldatuko duenik.

Bestalde, landare-estaldura murrizteak zuhaitzak moztuz berotegi-efektuko gasak xurgatzeko ahalmena gutxitzea ekarriko du. Plan Bereziaren ondorioz sortu daitezkeen jardueren tamaina txikia denez, esan daiteke inpaktua ez dela oso esanguratsua izango.

Beraz, Plan Bereziak ez du Aginagak klima-aldaketaren aurrean duen kalteberatasuna eta arriskua handituko.

6.14. Jasangarritasun energetikoa

Plan Berezitik sortu daitezkeen jarduerak jasangarriak izango direla ziurtatzeko, garapenek betetzeko hainbat neurri proposatzen dira agiri honetan (ikus 10.atala), Usurbilgo Energia Jasangarrirako Ekintza Planean (EJEP) jasotako neurriekin bat datozenak.

Neurriak Plan Berezitik sortu daitezkeen eraikin berrien jasangarritasunari bideratuta doaz, hauek baliabideen kontsumoa (ura, argia, etab.) murrizteko, energia berriztagarrien erabilera bultzatzeko, argi-instalazioen kutsadura saihesteko eta mugikortasun eraginkorra bultzatzeko irizpideak ezartzen dituzte.